



**KURUTZIA
IKASTOLA**

**HEZKUNTZA- SISTEMAN
HEZKIDETZA ETA GENERO-
INDARKERIAREN PREBENTZIOA
LANTZEKO PLANA**

2015 / 2016 IKASTURTEA

▪ AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA	3
1.1 Ikastolaren kokapena eta testuingurua	3
1.2 Ikastolaren deskribapena	4
1.3 Hezkidetzeta plana aurrera eramateko arrazoiak	9
1.4 Ikastolak egindako ibilbidea	10
1.5 Marko juridikoa	13
1.6 Proiektua definitzeko irizpideak	21
2. HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK	23
3. HELBURUAK, JARDUERAK, ARURADUNAK ETA DEBORALIZAZIOA	27
4. JARRAIPENA ETA LORPEN ADIERAZLEAK	42
5. EBALUAZIOA ETA MEMORIA	48
6. BIBLIOGRAFIA	50

1. JUSTIFIKAZIOA

1.1. IKASTOLAREN KOKAPENA ETA TESTUINGURAKETA

Kurutziaga Ikastola, Bizkaian kokatzen da; hain zuzen, Ibaizabal erreka ezker ertzean dagoen Durango herrian.

Azken hamarkadatan Durango herriak etengabeko hazkuntza demografikoa ezagutu izan du. Honek, hain zuzen, argi asko erakusten du adin piramidearen gaztetasuna. Durangok, 2013ko datuen arabera 28.893 biztanle ditu.

Durango neurri ertaineko zerbitzu hiria da. Autonomia Erkidegoko geografian estrategikoki kokatuta dago, eta langileriaren zati handi bat betetzen duen industria garrantzitsu bat du, batez ere, fundizio eta tresneriaren arloan. Durangoaldeko herri handiena izanik, zerbitzu arloa oso garatua du, batez ere, merkataritza, zerbitzu publiko, garraio, banku eta aseguruiei dagokienean.

Herriak bederatzi hezkuntza ikastetxe ditu; hiru ikastetxe publiko eta itunpeko sei ikastetxe.

IKASTETXE PUBLIKOAK	ESKAINNTZA AKADEMIKOA
Zabalarra LHI	HH eta LH
Landakao LHI	HH eta LH
IES Fray Juan de Zumarraga	DBH Batxilergoa Lanbide heziketa

ITUNPEKO IKASTETXEAK	ESKAINNTZA AKAEMIKOA
Nevers	HH, LH eta DBH
San Antonio- Santa Rita	HH, LH eta DBH
San Jose-Jesuitak	HH, LH, DBH eta batxilergoa
Maristak	Batxilergoa, Lanbide heziketa eta PCPI
Kurutziaga ikastola	HH, LH eta DBH
Ibaizabal ikastola	Batxilergoa eta Lanbide heziketa

1.2. Ikastolaren deskribapena

Kurutziaga ikastolak 1968ko otsailean jasotzen du hezkuntza jarduera aurrera eramateko baimena. Hortik aurrea hasiko da Kurutziagaren hazkundera, gelak sortzen hasi eta ume gehiago matrikulatuz ikastolan. Sorrerako gurasoek ikasle euskaldunak, pertsona kritikoak eta ekintzaileak lortzea zuten helburu.

1972 urtean Guraso Kooperatiba modura eratzen da Kurutziaga, orduan hainbat ikastolek hartutako eredutik. Herri izaerari lotutako antolaketa hartzen du lan modua Kurutziagak. 1976 urtean gaurko ikastolaren lehen oinarriak ipintzen dira.

Kurutziaga ikastola itunpeko ikastetxea da eta eskaintzen duen hizkuntz eredu bakarra *D* eredua da.

Ikastola honetan HH, LH eta DBH etapak eskaintzek dira.

Haur hezkuntza etapa, bi ziklotan antolatuta dago. Lehenengo zikloan 0, 1 eta 2 urteko gelak daude eta bigarren zikloan, 3, 4 eta 5 urteko gelak.

Lehen hezkuntza, hiru ziklotan banatuta dago. Lehenengo zikloan 1. eta 2. mailak daude, bigarren zikloan, 3. eta 4. mailak eta hirugarren zikloan, 5. eta 6. mailak.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza, bi ziklotan banatuta dago. Lehenengo zikloan 1. eta 2. mailak daude eta bigarren zikloan 3. eta 4. Mailak.

Espazioaren eta gelen antolaketa bi eraikuntzetan (A eraikina eta B eraikina) ematen da, 3 gelen bidez bi eraikinak alde batetik komunikatzen direlarik. Jarraian, eraikin bakoitzaren antolaketa azaltzen da.

A eraikina

1. Solairua: 0, 1 eta 2 urteko gelak, psikomotrizitate gela bat eta, jantoki txikia, jantoki handia eta sukaldea.

2. Solairua: Psikomotrizitate gela, material biltegia eta, 3 eta 4 urteko gelak.

3. Solairua: 5 urteko gelak, irakasleen gela eta orientazio departamentuko gela bat.

B eraikina

1. Solairua: Idazkaritza, administrazioa, zuzendaritza, material biltegi bi, areto nagusia, bilera gela bi, ordenagailu gela bat, IKT teknikariaren bulegoa, aldagelak eta komuna.

2. Solairua: Gimnasioa, musika gela, irrati gela, zerbitzu anitzeko gela eta LH 1go zikloko gelak.

3. Solairua: Liburutegia, irakasleen gelak, orientazio departamentuko gela, LH 2.zikloa eta 5.mailako gelak.

4. Solairua: Plastika gela, irakasleen gela, orientazio departamentuko gela eta, 6.mailako eta DBH 1go zikloko gelak.

5. Solairua: Laborategia, teknologia gela, orientazio departamentuko gela, irakasleen gela eta, DBH 2. zikloko gelak.

Ikastolan 963 ikasle eta 107 langile daude.

Hurrengo taulan, ikasle eta langileen sailkapena aurkezten da etapa, lan esparrua, maila eta generoaren arabera antolatuturik.

ETAPA	MAILA	IKASLE KOURUA	NESKA	MUTIL
HH	0 urte	3	1	2
	1 urte	42	29	13
	2 urte	62	34	28
	3 urte	77	34	43
	4 urte	78	38	40
	5 urte	75	46	29
LH	1	63	31	32
	2	72	41	31
	3	72	30	42
	4	74	37	37
	5	59	31	28
	6	64	36	28
DBH	1	59	31	28
	2	62	29	33
	3	53	27	26
	4	65	35	30

GUZTIRA	980	510	470
----------------	------------	------------	------------

Ikasle etorkinen artean jatorriaren eta etaparen arabera honela antolatzen dira:

ETAPA	JATORRIA	IKASLE KOURUA	NESKA	MUTIL
HH	NIGERIA	6	2	4
LH	URUGUAI	2	1	0
	BOLIVIA	2	2	0
	GINEA EKUA.	1	1	0
	KOLONBIA	2	0	2
	RUMANIA	1	1	0
	VALENTZIA	3	1	2
	PORTUGAL	2	1	1
DBH	RUMANIA	3	1	2
	URUGUAI	1	0	1
	KOLONBIA	3	2	1
	MALI	2	0	2
	BOLIVIA	1	1	0

GUZTIRA	29	13	16
----------------	-----------	-----------	-----------

LANGILLEN ANTOLAKETA	ETAPA / LAN ESPARRUA	LANGILE KOURUA	NESKA	MUTIL
ZUZENDARITZA NAGUSIA	IKASTOLAO KOORDINAKETA	5	2	3
ORIENTAZIO EPARTAMENTUA	HH, LH, DBH	5	4	1
IRAKASLE TUTOREAK	HH	20	19	1
	LH	18	15	3
	DBH	12	8	4
TUORE EZ DIREN IRAKASLEAK	HH, LH, DBH	19	16	3
ZERBITZUETAKO LANGILEAK	MANTENU ARDURADUNAK	2	0	2
	KIROLETAKO ARDURADUNA	1	0	1
	IKT TEKNIKARIA	1	0	1
	JANTOKIA	19	17	2
	GARBIKETA	10	10	0
GUZTIRA		102	81	21

1.3 HEZKIDETZA PLANA AURRERA ERAMATEKO ARRAZOIAK

Gizartean ematen diren etengabeko aldaketek eragin zuzena dute hezkuntza sisteman. Hau dela eta, ikastetxeetan, hezkidetzeta, prozesu jarrai baten bidez barneratzea ezinbestekoa da, pertsonen garapen integrala bultzatzeko, genero estereotipoak ezarritako mugak eta jokabide sexistak gaindituz.

Hezkidetzeta, heziketa metodo gisa, sexuen arteko berdintasunean eta diskriminazio eza oinarritzen da, genero estereotipoetatik kanpo egiten den hezkuntza baita. Sexualitate guztiak aintzat hartzen ditu, identitateen aniztasuna onartuz eta zilegituz. Beraz, ikasleek askatasuna eta aukera izan beharko dute identitatearen auto-eraketa garatzeko eta, modu seguruan, testuinguru honetan, dialektika berri bat praktikatzeko.

Gure Hezkuntza proiektuan jasota dagoen bezala, ikastolak, ikasleen arteko harremanak berdintasun iraunkorretik sustatzeko konpromisoa du, hezkuntza ez sexistaren aldeko hautua eginez eta curriculum guztietan zein arlo ez curricularrean genero ikuspegia txertatuz. Horrela, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatuko du eta sozializazio horrek, nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetuko du identitate propioen eraikuntzan.

Orain arte, arlo hau lantzeko eta gure hezkuntza sisteman txertatzeko sentsibilizazio eta ekintza zehatz batzuk egin diren arren, inoiz ez zaio era sistematiko eta estrategiko batez heldu.

Honegatik guztiagatik, beharrezkoa ikusten dugu transformazio-prozesuan lanean jarraitzea eta plan orokor, estrategikoa eta sistematikoa egitea. Alde batetik, ikastolak bizi duen errealitatea aztertzeke eta hobeto ezagutzeko. Bestetik, ikastola komunitatean eragin eta aldaketa

esanguratsua lortzeko, genero- indarkeriarekin loturiko hezkidetzaren berdintasuna eta prebentzioa landuz.

1.4 IKASTOLAK EGINDAKO IBILBIDEA

Hezkidetzaren eta genero- indarkeriaren prebentzio gaia ez da gurean berria. Hain zuzen ere, duela 20 bat urte hasi ginen, ikastolako asanblada nagusi batean, komunitate eragile desberdinetatik jasotako kezken gaineko hausnarketa baten ondorioz, arlo hau lantzen.

Horretarako, haur hezkuntzan, erabiltzen ziren txoko dinamikak eta ikasmaterialak aztertu eta egokitu egin ziren, eskaintzen zituzten estereotipo sexistak baztertuz eta genero berdintasuna bermatzen zituzten ereduak eskainiz.

Geroago, geletan suertatzen ziren premia anitzei erantzuteko asmoarekin, berdintasuna eta harreman sexu- afektiboak lantzeko " Turín, A. A favor de las niñas. Lumen argitaletxea." liburu bilduma eskuratu zen.

Geroztik, material egokitzapenak, aipatutako liburu bilduma eta genero ikuspegia lantzen duten beste haur eta gazte literatur bildumak (Arrasateko udala. 2010. Kili kontuak- Sexualitatea haurrekin lantzeko ipuinak. Arrasateko udala, sexologia zerbitzua.) erabili izan dira, ekintza zehatzak eta hezkidetzaren eta genero-indarkeria jorratzeko.

Garai hartan ere, ikastolako orientazio departamentuak berritzeguneak eta Durangoko merinaldearen amankomunitateak antolatutako "Hezkuntza afektibo- sexuala" mintegian parte hartu zuen eta jasotako prestakuntza ikastolako langilearen artean zabaldu zuen.

Bestalde, lehen hezkuntza etapan ere, ikasmaterialak aztertu eta egokitu egin ziren eta berritzegunean jasotako prestakuntzatik eskuratutako material didaktikoa geletako jardunean txertatu zen.

2005-2006. ikasturtean, Emakunde erakundetik, berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia ezarako heziketa bermatzen zuen Nahiko programan parte hartzeko aukera zabaldu zen. Ikastolak proiektu interesgarria zela ikusi zuen eta lehen hezkuntzako hirugarren zikloan martxan jarri zen poliki- poliki, lehenengo eta bigarren zikloetara zabaldu arte. Gainera, 2010-2011 ikasturtean lehen hezkuntza etapak, Nahiko-Emakunderen Hezkidetzak proiektu pilotuan parte hartu zuen. Erakundetik, gurasoentzako formazioa, geletan interbentzio zuzena burutzeko ikastolaz kanpoko profesionalak eta material didaktikoa jaso zen. Geroztik, etapako plangintzan txeratutako plana da eta urtero, etapa osoak programa aurrera eramaten du bertako material didaktikoak tutoretza saioetan erabiliz.

Horrez gain, 2013-14 ikasturtean, lehen hezkuntzako hirugarren zikloan, genero berdintasuna eta harreman sexu- afektiboak landu dira gelako curriculumaren barruan sexu hezkuntza lantzerakoan.

Modu berean, derrigorrezko bigarren hezkuntza etapa osoak, 2004. ikasturtetik gaur egun arte dihardute Durangoko merinaldearen amankomunitateak eskaintzen duen harreman sexu- afektiboen heziketa programan.

Baita ere, DBHko 1. Mailako ikasleek 2009tik aurtengo ikasturtera arte, EAEko Ikastetxeetako Kultura Arteko Bizikidetzari buruzko Sentsibilizazio Programa aurrera eraman dute Biltze zerbitzuaren eskutik.

Era berean, 2009tik 2014 ikasturte arte, DBHko 4. Mailako ikasle eta irakasleek Beldur barik programaren ekintza ezberdin anitz aurrera eraman dituzte.

Halaber, aurtengo ikasturtean, DBHko 2. Mailako ikasle eta irakasleek, Aldartek, Durangoko udaletxeak eta Andraguneak Homofobia eta sexu eskubideari buruz antolatutako erakusketara joateko aukera izan dute.

Honez gain, 2013/2014 ikasturtean, eskola kontseiluan zein irakasle taldean ikastolako kanpo espazioak eta bertan bizi eta suertatzen diren sexu desberdintasunak mahai gaineratu izan dira. Egindako hausnarketa orokorrak ondorioztatzen du jolastokian dauden espazioen banaketa sexista dela eta, jolas eta baliabide desberdinen artean desoreka handia dagoela (futbolak espazio eta baliabide gehienak hartzen ditu). Hau horrela, ikastolako kanpo espazioen errealitatearen aurrean, jolastokiko espazioen eta baliabideen banaketa zein erabilera berraztertze eta erantzun berri bat emateko beharra ikusi da.

Aipatzekoa da, antzinatek eta urtero, hezkidetzeta eta genero indarkeriari loturiko data esanguratsuenak sentsibilizazio ekintza sistematiko eta curriculum- proposamen zehatzen bidez ospatu egin direla ikastolan; hala nola, martxoak 8, Maiatzak 17 eta azaroak 25.

2013-14, ikastolak Durangoaldeko Hezkidetzeta mintegian parte hartu izan du. Eta 2014-15 ikasturtean, Hezkuntza sailaren deialdiaren barnean, Ikastolak hezkidetzeta plana diseinatu eta abian jarri zuen eta berritzeguneko hezkidetzeta mintegian parte hartu zuen.

2015-16 ikasturtean ere Hezkidetzeta planarekin jarraituko dugu, batez ere, diagnostiko fasea eta sentsibilizazio faseak bukatu eta formakuntza eta ekintzen zabalkundearen indarra jarriz.

1.5 MARKO JURIDIKOA

Hezkuntza- sistema sozializazio- eragile garrantzitsua da, eta herritar guztien identitatea eratzen esku hartzen du. Hau horrela, hezkuntza- sistema hezkidetzazko eskola- eredu bat lortzera bultzatzen duten hainbat araudi, gomendio eta plan garatu izan dira.

Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- aitortzen du zer eginkizun nagusi betetzen duen hezkuntza- sistemak berdintasunaren arloan. Ildo horretatik, III. tituluan, kapitulu oso bat dago hezkuntzaren esku- hartze arloan berdintasuna sustatzeko neurriei buruz, hala unibertsitateko irakaskuntzan, nola unibertsitateaz kanpokoan.

Baina, 4/2005 Legeaz gain, hezkuntza- arloan berdintasuna sustatzeko araudi esparru zabala dagoenez, jarraian, erreferente nagusizat jotzen diren arau, akordio eta planetako batzuen laburpena azaltzen da.

Otsailaren 19koa 2/1993 -Euskal Eskola Publikoa-.

- **Hezkidetzeta zeharka txertatuko duen hezkuntza- politika**

3. artikuluko 1.puntua:

Gure eskola izan behar da anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura aldetik ingurunean errotua, partaidetzazkoa, desberdintasunen berdintzailea eta aniztasunaren bateratzailea. Horrez gain, eskolaren helburuen artean dugu "irakasten denaren hezkidetzazko izaera bermatzea".

Abenduaren 28koa 1/2004

-Genero- indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriak-.

- **Genero- indarkeriaren detekzioa eta hari aurre egitea**

5. artikulua:

Administrazio eskudunek berehalako eskolatzea ezarri beharko dute, genero-indarkeriazko egitateen ondorioz bizilekua aldatu behar denean, eta horrek seme- alabengan ondorioak dituenean.

- **Koordinaziorako pertsonak eta egiturak hezkuntza- sisteman**

8. artikulua:

Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko eskola- kontseiluek bultzatzen dutela hezkuntza neurriak hartzea gizonen eta emakumeen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna, suspertzeko. Xede berarekin, Estatuaren Eskola Kontseiluan ziurtatuko da ordezkatura izatea Emakumearen Institutua eta, nazio- lurralde guztia sustraituta izanik, emakumeen interesak defendatzen dituzten erakundeak.

- **Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizuna**

9. artikulua:

Hezkuntza- ikuskatzailearen zerbitzuek zainduko dute kapitulu honetan jasotako printzipio eta balioak aplikatzea hezkuntza- sisteman, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna suspertzeko.

Otsailaren 18koa 4/2005

– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- .

Lege honek ikastetxeek berdintasuna sustatzeko ezarritako neurrien jarraipena egiteko ardura ematen die hezkuntza- ikuskaritzako zerbitzuei.

- **Hezkidetzak zeharkak txertatuko duen hezkuntza- politika**

28. artikulua:

Hezkuntza- sistema prematzen du hezkidetzak- eredu bat gara dezan.

- **Curriculumaren edukia**

29. artikulua:

Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak- helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza- arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

a) Emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberrako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.

c) Beharrezko ezagutzak sartzea, neska- mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.

d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.

e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik

duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak- ereduak ere.

Era berean, Legeak adierazten duenez, Hezkuntza Administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza- maila guztietan indarkeriazko jokoerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza- maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak- ereduak ikastearekin.

- **Ikasmaterialak**

30. artikulua:

-Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu- objektu soilak direla adierazten duen testu- liburu edo ikasmaterial oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

-Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta beste ikasmaterial guztiek, inola ere, aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazi diren hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez- estereotipatua bermatu behar dute.

- **Koordinaziorako pertsonak eta egiturak hezkuntza- sisteman**

31. artikulua:

Genero- indarkeriako kasu bat antzematean hezkuntza- komunitateak nola jokatu behar duen erregulatu du batez ere berdintasunaren arloko araudiak.

Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza- organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta nesken aurka nabaritzen duten indarkeria- zantzu oro.

Beren zereginetan genero-ikuspegia integratzeko, hezkidetzaren trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dira hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzuetan.

Horrez gain, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. puntuak honakoa adierazten du otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluari buruz:

Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berritzatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dira.

Berdintasunaren arloko araudiak erregulatzen duen beste alderdi bat da emakumeek eta gizonen irakaskuntzan presentzia orekatua izatea.

Hala, honako hau ezartzen du 31.2 artikuluan:

Hezkuntza Administrazioak zera bultzatuko du: emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izan dezatela jakintza- arlo eta hezkuntzako etapa ezberdinetan, eta halaber ikastetxeen zuzendaritza- organoetan.

- **Prestakuntza**

32. artikulua:

1. Hezkuntza Administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza- planak jarriko ditu abian; plan horiek irakaskuntzako profesionalei zuzenduta egongo dira, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte beren baitan.

Ikastetxeetako prestakuntzari dagokionez, honakoa xedatzen du:

2. Ikastetxe bakoitzak prestakuntza- plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezar ditzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolaketan. Gainera, mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek eragindako ikasleei erantzuteko.

Irakasleen etengabeko prestakuntzari dagokionez, Legeak hau ezartzen du:

3. Irakaskuntzako profesionalei -banaka zein ikastetxeen bidez- zuzentzen zaien etengabeko prestakuntzarako eskaintzak, bere edukietan, zeharka, hezkidetzako filosofia barneratu behar du, eta, horrez gain, hezkidetzari buruzko ikastaro zehatzak jaso behar ditu.

Maiatzaren 3koa 2/2006 Lege Organikoa – Hezkuntzari buruzkoak-

Lege honek ikastetxeek berdintasuna sustatzeko ezarritako neurrien jarraipena egiteko ardura ematen die hezkuntza- ikuskaritzako zerbitzuei.

- **Koordinaziorako pertsonak eta egiturak hezkuntza- sisteman**

126.2. artikulua:

Ikastetxearen Eskola Kontseilua eratu ondoren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza- neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du.

127.3. artikulua:

Ikastetxearen Eskola Kontseiluaren eskumena izango da ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta gatazken konponbide baketsua- bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta sozialaren eremu guztietan- bultzatzeko neurriak eta ekimenak proposatzea.

- **Genero- indarkeriaren detekzioa eta hari aurre egitea**

Bestalde, hau dio 25. xedapen gehigarrian:

Genero- indarkeriako ekintzen edo eskola- jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleen berehalako eskolatzea ziurtatuko dute hezkuntza- administrazioek. halaber, ikastetxeek ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko aukera erraztuko dute.

Ministro batzordearen CM/ Rec (2007)

Gomendioa estatuei, hezkuntzaren alorrean genero- ikuspegia aintzat har dezaten, non estatu kide guztiei eskatzen zaien askotariko neurriak har ditzatela genero- ikuspegia hezkuntza- sistemako hainbat eremu eta mailetan txertatzeko.

1.6 Proiektua definitzeko irizpideak

Ikastolak urteetan zehar egindako ibilbidea eta esparru juridikoa behatu eta aztertu ondoren, argi ikusten da ikastolan hezkidetzeta eta genero-indarkerien inguruan lan egin dela baina ez dela nahikoa izan hau, hezkidetzan oinarritutako ikastola bat bihurtzeko.

Aurreko atal baten aipatu den bezala, gure hezkuntza sisteman txertatzeko sentsibilizazio, ekintza, moldaketa eta aldaketa zehatz batzuk egin diren arren, inoiz ez zaio era sistematiko eta estrategiko batez heldu gaiari. Horregatik, beharrezkoa ikusten da transformazio- prozesuan lanean jarraitzea eta plan orokor, estrategikoa eta sistematikoa egitea.

Plan hau aurrera eramateko eta diseinatzeko, hezkidetzeta planean azaltzen diren bost erronka nagusiei erreparatu zaie, ezarritako helburuak erronka horietan oinarritzen baitira.

Hau horrela, aurreragoko atal baten planteatzen diren helburuak hiru fasetan gauzatzea proposatzen da: sentsibilizazio fasea, diagnostiko fasea eta hausnarketa, planifikazio, jarraipen eta ebaluazio fasea.

2014-2015 ikasturtean, sentsibilizazio eta diagnostiko faseei heldu zitzaien, ikastolaren egoera hobeto ezagutzeko, ikastolak dituen indarguneak areagotzeko eta bestetik, gabeziak identifikatzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Irakasleekin egin zen diagnostiko fasea eta baita ikasleekin ere, dena dela oraindik ondorioak ez dira atera, eta hori izango da aurtengo helburuetako bat, egindako inkesten balorazioa egitea. Horrez gain, irakasleak ez diren langileekin eta gurasoekin ere aurrera eramatea da gure asmoa **2015-16** ikasturtean.

Baina guzti hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da ikastola komunitate osoarekin sentsibilizazioa lantzea, benetan sexismoaz jabetzeko eta berdintasunaren alde lan egiteko.

2015-2016/ 2016-2017 ikasturteetan, ikastola komunitatea sentsibilizazio fasean eta emaitzen hausnarketa, planifikazio, jarraipen eta ebaluazio fasean buru belarri sartuta jarraituko du.

Aurreko fasean lortutako informazioaren antolaketa eta planifikazioa egin beharko da ikastolako eragileek horren inguruan hausnartu dezaten. Izan ere, lanketa hau baliagarria izango baitaie hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren eraikuntzan. Alde batetik, zentroaren egoera erreala ezagutuko da eta bestetik, ikastolako talde eragileen kohesioa lortuko da.

Honek ere aukera emango du, ikastolak dituen indar-guneak areagotzeko eta gabeziak aldatzeko, helburu eta jardueraren estrategiko eta sistematikoaren plangintza baten bidez.

2. HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

Aipatzen diren bost helburu orokorrak, 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan zehar garatzea proposatzen da; hauei dagokien helburu espezifikoak aldiz, 2015-2016 ikasturtean aurrera eramatea da xedea.

1. Hezkidetzaren oinarritutako eskolaren eredia sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartzea planteamendu integral batez.

- 1.1 Hezkidetzaren ideia eta kontzeptua hezkuntza komunitatean zabaltzeko balio egokien transmisioaren bidez.
- 1.2 Ikastolako komunitatea sentsibilizatu.
- 1.3 Ikastolak hezkidetzaren arloan dituen ahuleziak eta indar-puntuak aztertzea diagnostiko sakon baten bidez.
 - 1.3.1 Hezkidetzaren oinarrituta, ikastolaren antolaketa aztertu.
 - 1.3.2 Hezkidetzaren oinarrituta, ikastolako alor desberdinetan erabiltzen den lengoia aztertu.
 - 1.3.3 Hezkidetzaren oinarrituta, ikastolako espazioen antolaketa eta erabilera aztertu.
 - 1.3.4 Hezkidetzaren oinarrituta, ikastolan erabiltzen diren material curricularrak eta ez curricularrak aztertu.
 - 1.3.5 Hezkidetzaren oinarrituta, ikasleriaren, itzaropenak, jarrerak eta jokaerak aztertu.

- 1.3.6 Hezkidetzaren oinarrituta, familiek, beren seme- alaben erreferente gisa, azaltzen dituzten itxaropen, jarrera eta jokaerak aztertu.
- 1.3.7 Hezkidetzaren oinarrituta, ikastolako irakasleria zein langileria, ikasleen eredu sozial gisa, eskaintzen dituzten itxaropen, jarrera eta jokaerak aztertu.
- 1.4 Diagnostikoaren bidez jasotako datuen azterketa eta hausnarketa egitea, ekintza positiborako neurriak sustatuz eta hurrengo ikasturteetarako berdintasuna ziurtatzeko helburuak eta ekintzak planifikatuz.
- 1.5 Diagnostikoaren bidez jasotako informazioa biltzea eta partaide guztiei itzultzea, pertsonen beharretatik eta ikastolako errealitatetik gertu egoteko.
- 1.6 Diagnostiko eta hausnarketa espezifiko baten bidez ikastolako kanpo espazioen banaketa eta erabilera aztertzea.
- 1.7 Kanpo espazioen inguruan egindako diagnostikoaren bidez jasotako informazioa biltzea eta diseinu parte-hartzaile berri bat egitea.
- 1.8 Kanpo espazioaren eraldatzea, egindako diseinu fasean oinarrituz
- 1.9 Ibiladia genero ikuspegitik antolatzea.
- 1.10 Ibilaldiko antolaketa organigraman hezkidetzaren ikuspegia ekintza guztietan bermatzea.

2. Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera aniztasuna errespetatuz eta genero- baldintzapez gabe.

- 2.1 Ikasleei, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean inguruan dituzten interesak eta kezak azaltzeko aukera eman, aurreiritzi sexistak baztertuz.
- 2.2 Ikasle bakoitzari, etorkizunari dagokionez, dituen itxaropenak, ametsak eta irudiak bilatzen lagundu genero bereizketarik gabe.
- 2.3 Ikasleei, egin ditzaketen aukera akademiko, profesionala edo pertsonala eta, sexu bereizketatik izan ditzaketen mugen inguruan hausnartzen laguntzea, generoaren arabera egindako aukerak saihestuz.
- 2.4 Bizitzako proiektu desberdinak garatzeko ikasleei, estereotipatu gabeko interes eta aukeren adierazpen pertsonala eskaintzea, neska eta mutil bakoitzaren identitate pertsonala baloratuz.

3. Genero-ikuspegia eskola-porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsala dela ziurtatzea, bai eta neska eta mutil guztiek hezkuntza-sisteman jarraitasuna izan dezaten bermatzea ere, ikasle guztien aniztasuna aintzat hartzea (etnikoa, kultura, ekonomikoa, gizarte mailakoa, funtzionala, sexuala, etab.)

4. Harreman afektibo- sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteko, aniztasun sexualaren eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarritzea.

4.1 Pertsona bakoitzaren identitate pertsonala baloratu, afektibitate eta sexualitate eredu guztiak errespetatuz eta askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatuz.

5. Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

5.1 Genero indarkeriaren inguruan, ikastola komunitatearen jabetasuna prozesua indartzea, genero indarkeria detektatzeko eta saihesteko, balio, erreferente, jarrera eta jokabide eredu egokiak eskainiz.

3. HELBURUAK, JARDUERAK, ARDURADUNAK ETA DEBORALIZAZIOA

1. Helburu orokorra: Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredua sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartzea planteamendu integral batez.			
Helburu espezifikoak	Ekintzak	Denboralizazioa	Arduraduna
1.1 Hezkidetzaren ideia eta kontzeptua hezkuntza komunitatean zabaldu balio egokien transmisioaren bidez.	Klaustroan hezkidetzeta planaren berri ematea eta urteko helburuak azaltzea. Eta honen onarpena (bozketa).	2015ko abendua	Hezkidetzeta proiektu taldea eta Zuzendaritza taldea.
	Etapaka hezkidetzako urteko plana aurkeztu	2015eko abendua	Hezkidetzeta proiektu taldeko arduraduna eta etapako koordinatzailea.
	Ikasgeletan hezkidetzeta zer den azaldu eta gai honi buruzko	2015ko abendua	Hezkidetzeta proiektu taldea eta tutoreak

	solasaldia sortu ikasleekin.		
	Ikastolako web orriko gurasoen atalean, hezkidetzeta proiektuari buruzko informazioa eskaini.	2015ko abendua	Hezkidetzeta proiektu taldea eta ikasketa burua.
1.2 Ikastolako komunitatea sentsibilizatu.	Langileriarri hezkidetzeta gaia lantzen duen bideoa eskaini.	2015ko abendua	Hezkidetzeta proiektu taldea.
	HH etapa: Hezkidetzeta tratatzen duen ipuina landu.	2015ko abendua	Tutoreak.
	LH etapa: Hezkidetzeta tratatzen duen ipuina/ irakurgaia eta bideoa landu.		
	DBH etapa: Hezkidetzeta tratatzen		

	bideoa landu.		
	Hezkidetza gaia lantzen duen bideoa edo irakurgaia eskaini web orriaren bitartez.	2015ko abendua	Hezkidetza proiektu taldea eta ikasketa burua.
	Langileriarri hezkidetza gaia lantzen duen bideoa eskaini.	2016ko urtarrila	Hezkidetza proiektu taldea.
	HH etapa: Hezkidetza tratatzen duen ipuina landu.	2016ko urtarrila	Tutoreak
	LH etapa: Hezkidetza tratatzen duen ipuina/ irakurgaia eta		

	bideoa landu.		
	DBH etapa: Hezkidetzeta tratatzen bideoa landu.		
	Hezkidetzeta gaia lantzen duen bideoa edo irakurgaia eskaini web orriaren bitartez.	2016ko urtarrila	Hezkidetzeta proiektu taldea eta ikasketa burua.
	Langileriarari hezkidetzeta gaia lantzen duen bideoa eskaini.	2016ko apirila	Hezkidetzeta proiektu taldea.
	HH etapa: Hezkidetzeta tratatzen duen ipuina landu.	2016ko apirila	Tutoreak
	LH etapa: Hezkidetzeta tratatzen		

	duen ipuina/ irakurgaia eta bideoa landu.		
	DBHko 1. Mailako ikasleek Biltze zerbitzuaren Ikastetxeetako Kultura Arteko Bizikidetzari buruzko Sentsibilizazio Programa aurrera eramán.	2016ko urtarrila	Etapako koordinatzailea eta tutoretza.
	DBH etapa: Hezkidetzeta tratatzen bideoa landu.	2016ko apirila	Tutoretza.

	Hezkidetzeta gaia lantzen duen bideoa edo irakurgaia eskaini web orriaren bitartez.	2016ko apirila	Hezkidetzeta proiektu taldea eta ikasketa burua.
1.3 Ikastolak hezkidetzeta arloan dituen ahuleziak eta indar-puntuak aztertzea diagnostiko sakon baten bidez.	Familiei eta ikastolako komunitateko agente guztiei arlo ezberdinen gainean hausnartzeko galdetegia pasatu.	2015-2016 ikasturtean zehar.	Hezkidetzeta proiektu taldea, zuzendaria, orientatzailea, tutoretza, jantoki arduraduna, mantenu arduraduna, kiroletako arduraduna, IKT arduraduna, garbiketa arduraduna.
1.4 Diagnostikoaren bidez jasotako datuen azterketa eta hausnarketa egitea, ekintza positiborako neurriak sustatuz eta hurrengo ikasturteetarako berdintasuna	Galdetegiaren datuak bildu, aztertu eta hauen inguruan hausnartu.	2016ko maiatza eta ekaina hasiera.	Hezkidetzeta proiektu taldea eta tutoretza.

ziurtatzeko helburuak eta ekintzak planifikatuz.			
1.5 Diagnostikoaren bidez jasotako informazioa biltzea eta partaide guztiei itzultzea, pertsonen beharretatik eta ikastolako errealitatetik gertu egoteko.	Diagnostikoaren bidez jasotako datuekin txosten bat egin eta partaide guztiei helarazi.	2016ko ekaina bukaera.	Hezkidetzeta proiektu taldea eta zuzendaritza taldea.
	Nahiko programa tutoretza saioetan landu LH etapako maila guztietan.	2015-2016 ikasturtean zehar.	Tutoretza.
	Martxoak 8 ospakizuna indartzea. Eta emakumearen astea lehenengoz antolatzea	2016ko martxoa	Hezkidetzeta proiektu taldea eta tutoretza.
	Durangaldeko hezkidetzako mintegietan parte-hartzea lanak eta esperientziak partekatzeke.	2015-16 ikasturte osoan zehar	Hezkidetzako arduraduna.
1.6 Diagnostiko eta hausnarketa espezifikoko baten bidez ikastolako kanpo espazioen (jolastokia) banaketa eta erabilera aztertzea.	Ikastolako jolastokiaren espazioen banaketa, baliabideak eta erabilera tresna zehatzen bidez aztertu.	Familia, ikasle eta ikastolako langileez osatutako lan – talde	2015- 2016 ikasturtea

		zehatza.	
1.7 Kanpo espazioen (jolastokiaren) inguruan egindako diagnostikoaren bidez jasotako informazioa biltzea eta diseinu parte-hartzaile berri bat egitea.	Azterketaren datuak bildu, aztertu, hauen inguruan hausnartu eta kanpo espazioaren diseinu berria diseinatu.	Familia, ikasle eta ikastolako langileez osatutako lan – talde zehatza.	2015/ 2016 ikasturtea.
1.8 Kanpo espazioaren eraldatzea, egindako diseinu fasean oinarrituz	Egindako azterketatik, ikasleen nahietatik abiatuta eta egindako diseinutik jolastokia eraldatzea	Familia, ikasle eta ikastolako langileez osatutako lan – talde zehatza.	2016ko uda
1.9 Ibiladia genero ikuspegitik antolatzea.	Ibilaldiako organigraman hezkidetzeta ikuspegia jarriko duen behatokia antolatzea	Guraso taldea	2015-16 ikasturtea
1.10 Ibilaldiko antolaketa organigraman hezkidetzeta ikuspegia ekintza guztietan bermatzea.	Ibilaldian antolatzen diren ekintza guztiak Hezkidetzeta behatokiak gainbegiratzea eta genero ikuspegia bermatzea.	Guraso taldea	2015-16 ikasturtea

<p>2. Helburu orokorra: Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera aniztasuna errespetatuz eta genero- baldintzapenik gabe.</p>			
Helburu espezifikoak	Ekintzak	Deboralizazioa	Arduraduna
<p>2.1 Ikasleei, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean inguruan dituzten interesak eta kezkek azaltzeko aukera eman, aurreiritzi sexistak baztertuz.</p>	<p>CIP-a (Cuestionario de interes personal) pasatu eta solasaldia egin DBH 4. mailako ikasleekin.</p>	<p>2015ko urria.</p>	<p>Orientatzailea eta tutoretza.</p>
	<p>ITK-a (Ikas teknikak galdetegia) pasatu eta solasaldia egin DBH 4. mailako ikasleekin.</p>	<p>2015ko azaroa</p>	<p>Orientatzailea eta tutoretza.</p>

<p>2.2 Ikasle bakoitzari, etorkizunari dagokionez, dituen itzaropenak, ametsak eta irudiak bilatzen lagundu genero bereizketarik gabe.</p>	<p>“Zein da nire etorkizuna?” eta “Ba al dakit zer gustatzen zaidan?” galdetegia pasatu eta solasaldia egin DBH 4. mailako ikasleekin.</p>	<p>2015eko abendua eta 2016ko urtarrila.</p>	<p>Orientatzailea eta tutoretza.</p>
<p>2.3 Ikasleei, egin ditzaketen aukera akademiko, profesionala edo pertsonala eta, sexu bereizketagatik izan ditzaketen mugen inguruan hausnartzen laguntzea, generoaren arabera egindako aukerak saihestuz.</p>	<p>“ Zertan moldatzen naiz hobeto?” eta “Nola ikusten dut nire burua?” galdetegia pasatu eta solasaldia egin DBH 4. mailako ikasleekin.</p>	<p>2016ko urtarrila, otsaila eta martxoa.</p>	<p>Orientatzailea eta tutoretza.</p>

<p>2.4 Bizitzako proiektu desberdinak garatzeko ikasleei, estereotipatu gabeko interes eta aukeren adierazpen pertsonala eskaintzea, neska eta mutil bakoitzaren identitate pertsonala baloratuz.</p>	<p>“Explora” eta “AF-5” galdetegiak pasatu.</p>	<p>2016ko apirila hasiera.</p>	<p>Orientatzailea eta tutoretza.</p>
	<p>Datuak jaso, aztertu eta DBH 4. mailako ikasleekin banan-banako elkarrizketak egin.</p>	<p>2016 Apirila erditik maiatzak arte.</p>	<p>Orientatzailea.</p>

3. Helburu orokorra: Genero-ikuspegia eskola-porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsala dela ziurtatzea, bai eta neska eta mutil guztiek hezkuntza-sisteman jarraitasuna izan dezaten bermatzea ere, ikasle guztien aniztasuna aintzat hartzea (etnikoa, kultura, ekonomikoa, gizarte mailakoa, funtzionala, sexuala, etab.)

***(2015-16/ 2016-17 ikasturteetan zehar burutzeko helburua)**

4. Helburu orokorra: Harreman afektibo- sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko heztea, aniztasun sexualaren eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarritzea.			
Helburu espezifikoak	Ekintzak	Debormalizazioa	Arduraduna
4.1 Pertsona bakoitzaren identitate pertsonala baloratu, afektibitate eta sexualitate eredu guztiak errespetatuz eta askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatuz.	LHko 3.zikloan Sexu hezkuntza programa aurrera eraman tutoretza saioetan.	2015- 2016 ikasturtean zehar.	Ikasketa buruak eta Tutoreak.
	LH etapa sexu hezkuntza programa diseinatzea	2015- 2016 ikasturtean zehar.	Ikasketa buruak eta Tutoreak.
	DBHko etapa osoa Durangoko merinaldearen amankomunitateak eskaintzen duen harreman sexu-afektiboen heziketa programan parte hartu.	2016eko otsaila eta martxoa.	Durangoko merinaldearen amankomunitatea.
	LH 3. Zikloan eta DBH etapa osoan, MAIATZAK 17 egunaren ospakizunaren zergatia tutoretzatan lantzea.	2016ko maiatza.	Hezkidetzeta proiektu taldea eta tutoreak.

	DBHo 2. Mailako ikasle eta irakasleek, Aldartek, Durangoko udaletxeak eta Andraguneak Homofobia eta sexu eskubideari buruz antolatutako erakusketara joan.	2016 maiatza.	Aldarte, Durangoko udaletxea eta Andragunea.
<p>5. Helburu orokorra: Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.</p>			
5.1 Genero indarkeriaren inguruan, ikastola komunitatearen jabekuntza prozesua indartzea, genero indarkeria detektatzeko eta saihesteko, balio, erreferente, jarrera eta jokabide eredu egokiak eskainiz.	DBHko 4. maila Beldur Barik programan parte hartu.	2015ko azaroa	Tutoretza.
	LH eta DBH etapa osoan, Azaroak 25 egunaren ospakizunaren zergatia gelan lantzea.	2015ko azaroa.	Hezkidetzeta proiektu taldea eta tutoretza.

• 2015-2016 IKASURTEKO JARDUEREN KRONOGRAMA

LH etapa osoak Nahiko programa. LH-n Sexu Hezkuntza.		LH etapa osoak Nahiko programa. LH-n Sexu Hezkuntza.			LH etapa osoak Nahiko programa. LH -n Sexu Hezkuntza.		
AZAROA	ABEN.	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
<ul style="list-style-type: none"> - Klaustroan proiektuaren berri eman. - Ikastolako langile, ikasle eta familiei urteko planaren berri eman. - Ikastolako langile eta ikasleei gaiaren gaineko materiala eskaini. - Orientatzailea Cip-a pasatu DBH 4. mailakoei. - Langile, ikasle eta familiei galdetegiaren atal bat pasatu. - Orientatzailea IKT-a pasatu DBH 4. mailakoei. - DBH 4. mailakoak Beldur barik programa. - Azaroak 25 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientatzailea galdetegia pasatu DBH 4. mailakoei. 	<ul style="list-style-type: none"> - Langile, ikasle eta familiei hezkidetzaren gaineko materiala eskaini. - DBH 1. mailakoek Biltze erakundearen Bizikidetzeta programa. - Orientatzailea galdetegia pasatu DBH4. mailakoei - Hezkidetzeta taldeak ikasleen galdetegiak aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientatzailea galdetegia pasatu DBH 4. mailakoei. - DBH etapa osoak Harreman sexu afektiboaren heziketa programa. - LH etapa sexu hezkuntza programa osoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientatzailea galdetegia pasatu DBH 4. mailako ikasleei. - DBH etapa osoak Harreman sexu afektiboaren heziketa programa. - Martxoak 8 	<ul style="list-style-type: none"> - Langile, ikasle eta familiei hezkidetzari buruzko materiala eskaini. - Orientatzailea "Explora" eta "AF-5" galdetegia pasatu DBH 4. mailakoei eta elkarrizketak hasi. - Langile, ikasle eta familiei galdetegia pasatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientatzaileak ikasleen banan-banan elkarrizketekin jarraitu. - Hezkidetzeta proiektu taldeak langile, ikasle eta familiei pasatutako galdetegiaren emaitzak bildu. - Maiatzak 17 - DBH 2. mailako ikasleak Andraguneko erakusketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostiko galdetegiaren emaitzak bildu eta hauen gainean hausnartu. - Diagnostikoaren emaitzen eta ondorioen txostena. - Emaitzak ikastola komunitateari helarazi.

Ikastolako kanpo espazioen (jolastokiaren) banaketa, erabilera eta baliabideen azterketa eta, diseinu parte hartzaile berriaren proposamena.

4. JARRAIPENA ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1) Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartzea planteamendu integral batez.

- Klaustroan "Hezkidetza eta genero - biolentzia prebenitzeko proiektua"-ren onarpenaren bozketan parte hartu duten irakasleriaren ehunekoa. (%100 parte hartzea.)
- Klaustroan proiektuaren onarpena emango da baldin eta irakasleriaren % 75 baiezko bozka ematen badu.
- Etapa bakoitzean hezkidetzaren zer den eta gida planean azaltzen diren erronken azalpenean, etapa bakoitzeko koordinatzailearen eta parte hartu duen irakasleriaren ehunekoa. (%60 parte hartzea)
- Ikasgeletan hezkidetza zer den azaldu eta gai honi buruz sortuko den solasaldian parte hartu duten tutoreen ehunekoa.(maila bakoitzeko % 66.6 parte hartzea).
- Ikasgeletan hezkidetza zer den azaldu eta gai honi buruz sortuko den solasaldian parte hartuko duten ikasleen ehunekoa.(%100 parte hartzea).
- Ikastolako web orriko gurasoen atalean, hezkidetza proiektuari buruzko atala sortu eta hornitu.
- Ikasturtean zehar, ikastolako langileriarri hezkidetza gaia lantzeko eskainitako bideo kopurua (minimo 3 bideo).
- Ikasturtean zehar, ikastolako HH etapari hezkidetza gaia lantzeko eskainitako ipuin kopurua (minimo 3 ipuin).

- Ikasturtean zehar, ikastolako HH etapak hezkidetza ipuinen bidez lantzeko proposamenean parte hartuko duten tutoreen ehunekoa eta ikasleen ehunekoa.
(maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- Ikasturtean zehar, ikastolako LH etapari hezkidetza gaia lantzeko eskainitako ipuin eta bideo kopurua (minimo 3 ipuin eta 3 bideo).
- Ikasturtean zehar, ikastolako LH etapak hezkidetza ipuinen eta bideoen bidez lantzeko proposamenean parte hartuko duten tutoreen ehunekoa eta ikasleen ehunekoa.
(maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- Ikasturtean zehar, ikastolako DBH etapari hezkidetza gaia lantzeko eskainitako bideo kopurua (minimo 3 ipuin).
- Ikasturtean zehar, ikastolako DBH etapak hezkidetza bideoen bidez lantzeko proposamenean parte hartuko duten tutoreen eta ikasleen ehunekoa.
(maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- Ikasturtean zehar, ikastolako familiei hezkidetzaren inguruan eskainitako bideo eta irakurgaien kopurua. (minimo 3 irakurgai edo 3 bideo).
- Ikastolako langile, ikasle eta familiei ikastola komunitatearen arlo ezberdinen ganean hausnartzeko sortutako galdetegiak. (3 galdetegi).
- Galdetegiaren datuak biltzerakoan, parte hartu duten familien ehunekoa.

- Galdetegiaren datuak aztertzerakoan, parte hartu duten tutoreen eta hezkidetzaren proiektu taldearen taldekideen ehunekoa.
- Galdetegiaren bidez jasotako emaitzen gainean hausnartzeko eta proposamenak diseinatzeko parte hartu duen langilearen ehunekoa.
- Diagnostikoaren emaitzen txostena.
- Ikastolako kanpo espazioak aztertzeko sortutako lan- talde zehatzak, espazioen inguruan hausnartzeko sortutako tresnak.
- Kanpo espazioen azterketaren datuak biltzerakoan, parte hartu duten langile, ikasle eta familien ehunekoa (lan- talde zehatza).
- Kanpo espazioen azterketaren bidez jasotako emaitzen gainean hausnartzeko eta proposamenak diseinatzeko parte hartu duen ikasle, langile eta familien (lan- talde zehatza) ehunekoa.
- Kanpo espazioen diseinu berriaren proposamen txostena.
- Ikasturtean zehar, LH etapan Nahiko programan parte hartuko duten tutoreen ehunekoa eta ikasleen ehunekoa. (maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- Ikasturtean zehar, LH etapan Nahiko programaren saioen kopurua. (Hiruhilabeteko bakoitzean minimo 2 saio).
- Martxoaren 8a emakumearen nazioarteko eguna denez, tutoretzen bidez, sexismo, hezkidetzaren eta feminismoaren eta emakumeen arloa landuko duten tutoreen ehunekoa. (Etaparen bakoitzetik, maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).

2. Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera aniztasuna errespetatuz eta genero- baldintzapenik gabe.

- CIP galdetegian eta solasaldian parte hartuko duten ikasleen kopurua sexuaren arabera.
- IKT galdetegian eta solasaldian parte hartuko duten ikasleen kopurua sexuaren arabera.
- "Zein da nire etorkizuna?" eta "Ba al dakit zer gustatzen zaidan?" galdetegian parte hartuko duten ikasleen kopurua sexuaren arabera.
- "Zertan moldatzen naiz hobeto?" eta "Nola ikusten dut nire burua?" galdetegian eta solasaldian parte hartuko duten ikasleen kopurua sexuaren arabera.
- "Explora eta AF-5" galdetegian parte hartuko duten ikasleen kopurua sexuaren arabera.
- Banan- banako orientazio elkarrizketetan 4. Mailako ikasleen parte hartzea ehunekotan eta sexuaren arabera.

4. Harreman afektibo- sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteko, aniztasun sexualaren eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarritzea.

- Sexu hezkuntza programan parte hartu duten tutoreen eta ikasleen kopurua. (Maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).

- Ikasturtean zehar, LH 3. Zikloan Sexu hezkuntza programan parte hartuko duten tutoreen ehunekoa eta ikasleen ehunekoa. (maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- LH 3 zikloan Sexu hezkuntza programaren saioen kopurua. (maila bakoitzean saioen %75 gutxienez).
- Durangoko merinaldearen amankomunitateak eskaintzen duen harreman sexu- afektiboen heziketa programan parte hartu duten ikasleen ehunekoa sexuaren arabera.
- Maiatzak 17, homosexualitateak, lesbianismoak eta transexualitateak bizi duten lege- egoeraren azterketan eta gaiaren lanketan parte hartuko duten tutoreen ehunekoa. (Etapak bakoitzetik, maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).
- Durangoko udaletxeak, Aldartek eta Andraguneak Homofobia eta sexu eskubideari buruz antolatutako erakusketan parte hartu duten ikasleen ehunekoa sexuaren arabera.

5. Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

- "Beldur barik" programan parte hartu duten DBH 4. Mailako ikasleen kopurua ehunekotan sexuaren arabera. (%100 parte hartzea).
- Maiatzak 17, homosexualitateak, lesbianismoak eta transexualitateak bizi duten lege- egoeraren azterketan eta gaiaren lanketan parte hartuko duten tutoreen ehunekoa. (Etapak bakoitzetik,

maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).

- Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna landuko duten LH eta DBH etapetako tutoreen eta ikasleen ehunekoa. (Etapak bakoitzetik, maila bakoitzeko tutoreen % 66.6 eta ikasleen %100 parte hartzea).

5. EBALUAZIOA ETA MEMORIA

Hezkidetzeta eta genero – biolentzia prebenitzeko proiektu honen jarraipena egiteko ebaluazio jarraitua proposatzen da, proiektuaren garapenean ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko helburuarekin. Horrela, aukera izango dugu proposatutako helburuak egokiak diren aztertzeko eta, jarduerak markatutako helburuak lortzeko egokiak diren ikusteko.

Proposatzen den ebaluazio jarraitua hiru fasetan banatuko da: hasiera fasea, garapen fasea eta azken fasea.

Hasiera fasea: Hezkidetzeta proiektu taldeak, ikastolako langileriarekin batera, hurrengo ikasturterako helburuen eta hauek aurrera eramateko burutu beharreko jardueren azterketa egingo dute, proiektuaren garapena optimizatzeko hartu beharreko erabakiak ahalbidetuz.

Garapen fasea: Proiektuaren garapena ematen den bitartean, Hezkidetzeta proiektu taldeak, irakasleriak, ikasleriak eta zuzendaritza taldeak aurrera eramango diren ekintza desberdinen jarraipena egingo dute ebaluazio txantilo baten bidez. Txantilo horretan, planean proposatzen diren

jarduerak eta, ikasle eta irakasleen inplikazio maila baloratu ez ezik, iruzkinak ere jasoko dira.

Azken fasea: Ikasturte bukaeran, proiektuan proposatzen diren helburuak kontuan izanik, proiektu osoaren ebaluazio orokorra egingo da lorpen adierazleen eta jasotako txantiloien laguntzaz. Horretarako, aurrera eramandako jarduera guztien balantzea egingo da lortutako emaitzak ebaluatuz eta hurrengo ikasturteetarako hobekuntzak (behar izanez gero) proposatuz.

Azkenik, Hezkidetza eta genero – biolentzia prebenitzeko proiektuaren ondorioak eta proposamen berriak ikasturte bukaerako memorian jasoko dira.

6. BIBLIOGRAFIA

- Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero indarkeriaren prebentzio plana (Eusko Jaurlaritza, hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Vitoria Gasteiz 2014).
- Ikastetxeetan hezkidetzeta eta genero berdintasunaren plana lantzeko gida (Marivi Fernandez Roldán, Pedro Mari Torres Elizondo, Irungo Berritzegunea, Errenteriako udala Berdintasun arloa) .
- Ana Belén Castilla Pérez. *Coeducación: pautas para su desarrollo en los centros educativos*. Sevilla. 2008. (Kontsulta: 2014o ekaina.)
Ikusgai:
http://www.ceuandalucia.es/escuelaabierta/pdf/articulos_ea11%20pdf/coeducacion%2048_95.pdf
- Durangoko Berritzegunea. B09 Hezkidetzeta(site).(Kontsulta: 2014ko ekaina). Ikusgai: <https://sites.google.com/site/b09hezkidetzeta/>
- Kurutziaga ikastola 2013. Kurutziaga ikastola(web).(kontsulta: 2014ko ekaina). Ikusgai: <http://www.kurutziagaikastola.net/>
- Duragoko udala. 2014. (Web). (Kontsulta: 2014ko ekaina). Ikusgai: http://www.durangoudala.net/portalDurango/p_1_final_Principal_1.jsp?language=eu